

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2017ko maiatzaren 10a, asteazkena.

Oharrak egin aurretik.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, goian adierazitako eguneko 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP) (laneko arrazoiak direla-eta ezin etorria adierazi du), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkaria.

Alkate-udalburu jaunak egin du bilkurarako deia, arauz ezarritako aurrerapen eta publizitatearekin.

Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko apirilaren 12an eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
- 3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obra eta Zerbitzuak eta Nekazaritza Batzordea.**

3.1. Behin betiko onestea txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantza.

3.2. Txakur abandonatuak edo kaleko txakurrak jasotzeko, zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioa.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.

7. Azken puntua: Eskaerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko apirilaren 12an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Villanueva Gutiérrez jauna: EH Bildu Oionek gizarte-zerbitzuen azterlan diagnostikoari buruz atera duen mozioari dagokion 5.1 gaian, alkate jaunak esan du egiaz PPK Batzar Nagusietan aurkeztu zuela mozioa eta Bilduk zuzendu egin zuela. Bada, hori ez da egia, eta egia ez dela jasota gera dadila nahi dut.

Idazkari jauna: Zinegotzi baten adierazpenak zuzentzeko egiten diren oharrak adierazpenok egin dituen hark egin behar ditu. Nolanahi ere, maiatzeko aktan oharra jasoko da.

Alkate jauna: Ez dago ezer zuzendu beharrik, esandako horixe bera jasotzen delako aktan.

Villanueva jaunak zenbait agiri eman ditu (Artziniegako Udalaren bilkurari dagokin aktaren 8. orrialdea (guztira 19 dira); Populares Alaveses talde batzarkidearen mozioa; eta ALHAOren 42. orrialdea, 23/2017 mozioaren onarpenari buruzko iragarkiarena).

Campos Latre jaunak eskatu du Villanueva jaunak emandako agirien kopia igortzeko.

Hau erabaki da:

- 1) 2017ko apirilaren 12ko bilkuraren akta onestea, igorritako zirriborroari jarraikiz.

Aldeko botoak: 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 3 (hiru): Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenak aurkeztu ditu; zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoak, hau da, 2017ko 77/17tik 96/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obra eta Zerbitzuak eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Behin betiko onestea txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantza.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalbatza Osoak, 2017ko martxoaren 8ko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza. Ordenantzaren arau-testua bat dator Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak emandako ereduarekin. Txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantzak txakur-jabeen betebeharrak ezartzen ditu, alde batetik, eta txakur abandonatuen edo kaleko txakurren kasuan bete beharreko erantzukizunak zehazten ditu, bestetik: udalerriko txakurrak identifikatzeko eta kontrolatzeko errolda egin behar da (nahitaezkoa da identifikazio-txipa instalatzea), eta erroldari eragingo dioten aldaketen berri eman behar da. Horrez gain, ordenantzak arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei buruzko beste zenbait arau dakartza.
2. Txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza onartzeko espedientea jendaurrean jarri da, Udalaren iragarki-taulan, webgunean eta azaroaren 11ko 126. ALHAOn iragarkia argitaratuta, eta aparteko jakinarazpena egin zaio Zaun elkarteari.
3. Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu. Espedientearen erreferentzia alfanumerikoa: OrdTenenPerrosDFA121220.

4. Aplikatzekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidegoari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) VI. titulua.
5. Proposamena Informazio Batzordearen bilkuran egin zen.

Hau erabaki da:

- 1) Behin betiko onestea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza.
- 1) Ordenantza hau osorik argitaratu da, eta indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (7/1985 Legea) 70.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren; indarrean jarraituko du berariaz baliogabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den artean.

Aldeko botoak: 7 (zazpi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

3. Txakur abandonatuak edo kaleko txakurrak jasotzeko, zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua emateko kudeaketa-gomendioa.

Aurrekariak:

- 1) 26/2013 Foru Dekretua, abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, lurralde historiko honetan txakur

abandonatuak edo kalekoak jasotzeko prozedura arautzen duena eta udalen kudeaketa-gomendioaren bitartez zerbitzua emateko modua bateratzen duena, 2013ko abuztuaren 21eko 95. ALHAOn argitaratua.

- 2) Dekretuak berariaz jasotzen du formalizatu beharreko hitzarmen-eredua. Erreferentzia alfanumerikoa: ConvenioDFADec262013.
- 3) Kudeaketa-gomendia onartzeko arrazoiak eraginkorrak dira txakur abandonatuak edo kalekoak biltzeko zerbitzua emateko orduan, eta ikusi da udalerrriak ez duela ez baliabide teknikorik ez giza baliabiderik zerbitzu hori emateko.
- 4) Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal-ordenantza.
- 5) Aplikatzekoa da Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea); zehazki, 11. artikulua, kudeaketa-gomendioei buruzkoa.

Hau erabaki da:

- 1) Onartzea txakur abandonatuak biltzeko, zaintzeko eta mantentzeko zerbitzuaren inguruan Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari egin zaion kudeaketa-gomendia, bat eginez abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 26/2013 Foru Dekretuaren 2. eranskinean ezartzen diren baldintzekin. Foru Dekretu horrek, hain zuzen ere, lurralde historiko honetan txakur abandonatuak edo kalekoak jasotzeko prozedura arautzen du,

eta udalen kudeaketa-gomendioaren bitartez zerbitzua emateko modua bateratzen du.

2) Geure gain hartzea 26/2013 Foru Dekretuaren 2. artikulua jasotzen dituen betebeharrak eta, bereziki, txakurrak edukitzea arautzen duen ordenantza bat onartzeko betebeharra, txakur-jabeen betebeharrak ezarriz eta txakur abandonatuen edo kaleko txakurren kasuan bete beharreko erantzukizunak zehaztuz: udalerriko txakurrak identifikatzeko eta kontrolatzeko errolda egitea (nahitaezkoa da identifikazio-txipa instalatzea), eta erroldari eragingo dioten aldaketen berri ematea.

3) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburuari eskumena ematea Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin batera kudeaketa-gomendioa betetzeko hitzarmena sinatzeko.

4) Zerbitzuaren kudeaketa-gomendio horrek dakar, halaber, Nekazaritza Sailari eskumena ematea zehapen-espedienteak agintzeko baldin eta jabeek txakurrak abandonatzen badituzte.

Aldeko botoak: 7 (zazpi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Villanueva jauna: Zenbait eragozpen ditut kudeaketa-gomendioan erabilitako formularen inguruan, txakurren aldeko elkartean diharduten zenbaiten profila dela eta, haiek beste kontu batzuetan daukaten jarrera dela eta...

Idazkari jauna: Aldundiak txakurrak biltzeko dekretuan ezartzen du kudeaketa-gomendioaren formula hori.

Azken puntua: Eskaerak eta galderak.

Villanueva jauna: San Justoko bidean zuhaitz batzuk lehortu dira, ur-faltagatik.

Villanueva jauna: 2018-19ko Obren Foru Plana iragarri da. Zer-nolako aurreikuspenak ditu gobernu-taldeak?

Alkate jauna: Aurrez esan nuen moduan, guk Iribarria kalean eta haren inguruan esku hartu asmo dugu. Sareen egoerari buruzko azterketa bat agindu dugu. Hasiera batean, kaleok ez zeukaten euri-uren sarerik; bada, 2005ean sarea jarri zen Laureano Iribarria kalean, Kale Berrian eta Vitoria plazako zati batean, eta, guk eginiko proposamenarekin, sare hori osatu genuen. Erdi-tentsioko lurpeko sare bat igarotzen da Laureano Iribarria kaletik eta Kale Berritik. Laureano Iribarriako zati txiki batean, behe-tentsioko sarea ere lurpekoa da; gainerako zatietan, sarea airekoa da. Gure proposamenarekin, instalazio hori etorkizunean lurpean jartzeko lanak erraztu nahi dira.

Arkitektura-oztopoak berberak dira kale guztietan: espaloiek gutxieneko dimentsioa daukate, batez beste metro bat, eta 15 eta 20 zentimetro arteko garaiera dute. Gainera, zintarri beheratuak dituzte hainbat lokaletara sartzeko, eta horrek izugarri estutzen ditu gutxieneko espaloi horiek. Hortaz, arkitektura-oztopo guztiak ezabatze aldera, proposatzen da kale guztiak berriro urbanizatzea, espaloiak 2 metro zabal eginez eta zintarri guztiak kenduz, kalea sestran egon

dadin; horrela, ubideek galtzadaren eta espaloiaren arteko bereizketa zehaztuko dute. Plan honetarako, eta EAJren eta EH Bilduren arteko itunaren harira, lehentasuna eman zaio oztopoak kentzeari. Horrenbestez, espero dugu aurkeztuko dugun obra ontzat joko digutela eta obrak finantza aldetik lasai egitea ahalbidetuko digun laguntza bat emango digutela.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2017ko maiatzaren 24an.

Udaleko idazkaria:

Udalburuak OE